

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Kartoizko munduak

M

unduko presidenterik onena zelakoan hil zen. Agintetik kendu, epaitu eta fusilatu, azkar egin zuten guztia, urteetan gelditua zirean bat-batean zurrumbilo eroan sartuta.

Nicolae Ceaucescuk ez zuen egoera hura ulertzen, Errumaniaren alde horrenbeste egin eta gero, bere burua hain gutxietsia ikustea. Errumaniarrak ote ziren galdetu ziren epailei. Nola zitekeen herrikideak izanda bere kontra halako gauzak esatea? Gertatzen zena ulertu gabe eman zituen azkenengo orduak, hura guztia egia ezin eta ames-gaiztoren bat zela sinetsita. Edo, bestela, mundua zoratu zela zeharo.

Ipuineko erregearen moduan, Ceaucescu biluzik zegoen, baina ordura arte inor ez zen aurpegiatzen ausartu. Bukatu zen Errumania birtuala, bere begiek bakarrik ikusten zutena, komunismoaren paradisia lurrean. Edonora bisitan joanda, berdin unibertsitateko edo meategietara, kartoizko mundua prestatzen zioten. Baina egun batean bukatu ziren txaloak, desagertu lausengari koadrila, eta orduan, Ceaucescuk ez zuen ezer ulertu.

Munduaren beste puntan, Ugandan, Idi Amin presidentek ere, bere agintaldia hain txarra eta gaiztoa izan zela uste gabe joan zen ihesi. Ez zuen menpean zituenen astake-



ria askoren berri izan azkenera arte. Sarri gertatzen da hori, gorengoen esanetara dauden zuritzaileek azken muturreraino eramaten dituztela gauzak. Oposiziokoak atxilotzeko agindu, eta Aminen polizia torturatu eta hil, eskatutakoa baino gehiago, badaezpada ere. Ederki azaltzen da hori *Eskeziako azken erregea* pelikulan.

Ceaucescuk eta Idi Aminek, beste agintari askok bezala, arazo berdina izan zuten: inor ez inguruan egiak aurpegiatzeko. Demokrata zein diktadore, eskuindar edo ezkertiar, koipe emailez babesturik egoten dira botere-

dunak, kaletik baino zerutik hurbi-lago. Denok beharko genuke egia esaleren bat, ARGIArako idatzitako artikuluok txarrak direla esateko, adibidez. Agintarien kasuan behar-beharrezkoa litzateke hori, premiazkoa, egia esale profesionalak kontratatu beharko litzukete.

Harrokeria uxatu eta oinak lurrean edukitzeko modu bat litzateke, kafeak 0,80 zentimo balio duela esanez lotsagarri ez gelditze-ko bada ere.

Gurera etorri, Euskal Herriaren izenean berba egiten duten kaputxadun pistoladunei egia aurpegiatu diete, behingoz, orain arte amen esan ditenenek. Horixe dirudi behintzat. Egia adierazteak libre egingo ditu. Hala espero, guztion onerako. ■

Denok beharko genuke egia esaleren bat, ARGIArako idatzitako artikuluok txarrak direla esateko, adibidez. Agintarien kasuan behar-beharrezkoa litzateke hori

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Dugu xede, beharrezko GPSa. Usurbilek erakutsi digu bidea, Hernanik eta Oiartzunek ibili nahi dutena. Etsaiak ere ez dira gutxi, eta azkarrak gure zaborraz industria egitera doazen horiek. Sortzen dugun horrek lotsatzen gaitu eta ezkutuan nahi dugun, miseriak disimulatzen ikasten bizia igarotzen dugun eran. Hor ere metodologia erraldoia eraikia dugun bezala, dekorazioa agerian kaka ideologikoak ezkutuan, hemen ere nahiko genuke zaborra auzoan. Hamaika egun eta hamaika hilabete igaro dituzte Jon Anzari eginikoa bertsio ezkututzaile batean zuritze-

Zero zabor

ez baino bezala munduratzeaz bat egiten ikasi ez bagenu legez. Auzo zapaltzaileek, berriz ere etxean erdian egin dira libratu eta beren zaborraren gainean haizagailua paratuz alde egin, sunda gurean zabalduz. Hemen norberak berea ezagutzen du eta inor ez du bere urrinak arrotzen. Eta Jon Anzari eginikoak aspaldi usaintzen dugunaren antza du, arrotza izateagatik etxeokarazten ikaragarriko estrategiaren uzta dena. Zirineriari eutsi ezinean dabilta. Gurean zero zabor eta konposta. ■